

u d a l  
biztanleriaren  
eguneratzea

10

actualización  
de la población  
municipal

---

**EMAITZEN ANALISIA**  
**ANÁLISIS DE RESULTADOS**

---

La Actualización de la Población Municipal ofrece continuidad anual a las cifras de población proporcionadas por los Censos y, hasta 1996, por las Renovaciones Padronales. Además, permite comparar la intensidad de los fenómenos demográficos -natural y migratorio- en su contribución a las variaciones numéricas de la población de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus diversos ámbitos espaciales: territorio histórico, comarca, municipio,....

Se pretende, por tanto, dar a conocer anualmente datos actualizados de la población de derecho de los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los períodos interpadronales, con fecha de referencia a 31 de diciembre de cada año. En cuanto a su contenido, la Web ofrece cifras de población y el desglose de los componentes de la variación de la población, por territorio histórico, comarca y municipio, además de la estructura de población por sexo y edad a nivel territorial. No obstante, **Eustat** tiene disponibles y, por tanto, puede proporcionar a todo aquel que lo solicite, datos desagregados a nivel de distrito y sección.

Con el fin de clarificar la lectura de este análisis, hay que precisar que el esquema seguido en el mismo aborda los cambios poblacionales definidos espacialmente de mayor a menor agregación: C.A. de Euskadi, territorios históricos, comarcas y, finalmente, municipios agrupados en función de su tamaño.

Tras una primera aproximación histórica a través de los Censos y Renovaciones Padronales de 1981, 1986, 1991 y 1996, el ámbito temporal contemplado en el análisis abarca dos fechas de referencia, por una parte el período intercensal que va desde el 1 de mayo de 1996 hasta la Actualización de la Población que nos ocupa referenciada a 31 de diciembre de 2001; y por otra, la variación anual desde la última Actualización de Población publicada por **Eustat**.

## APROXIMACIÓN HISTÓRICA

La evolución de las grandes cifras de población muestra una ralentización en la tendencia de descenso de la población iniciada en nuestra Comunidad a principios de los 80. En este sentido, la tasa de crecimiento intercensal de la C.A. de Euskadi -que indica el descenso porcentual medio anual de población desde la última Renovación Padronal- mantiene su signo negativo aunque no la intensidad. En los tres primeros períodos interpadronales analizados (1981-1986, 1986-1991 y 1991-1996), las tasas oscilan alternativamente entre -0,1% y -0,3%. Y se sitúa en -0,04% en el último período interpadronal, entre el 1 de mayo de 1996 y diciembre de 2001.

Udal-Biztanleriaren Eguneratzeak urtean behingo jarraipena ematen die zentsuek emandako biztanleria-zifrei eta, 1996a arte, errolda-berriztapenek eskaintzen zituzten biztanle-kopuruari. Gainera, demografi gertakarien (berezko mugimenduen eta migrazioen) intentsitateak Euskal Autonomia Erkidegoko eremu espazialen (lurralde historikoen, eskualdeen, udalerrien,...) zenbakizko aldakuntzei nolako ekarpena egin dien konparatzea ahalbidetzen du.

Asmoa, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek errolda arteko aldietan dituzten zuzenbideko biztanleriari buruzko datu eguneratuak urtero ezagutaraztea da, betiere urte bakoitzeko abenduaren 31ko erreferentzia-datarekin. Edukiari dagokionez, web orriak eskaintzen ditu biztanle-kopuruak eta biztanleria-aldakuntzaren osagaien xehekapena, lurralde historikoa, eskualdeka eta udalerrikoa, bai eta lurralde mailako sexu eta adinkako biztanleria-egitura ere. **Eustatek**, dena dela, erabilgarri ditu -eta beraz, eskatzen dituenari eskain diezazkioke- barruti eta sekzio mailako datu destaldekatuak ere.

Analisi hau behar bezala ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da bertan aztertzen ditugun biztanle-kopuruaren aldaketak lurralde-eremuen taldekatze-mailaren arabera antolatu ditugula, maila txikienetatik handienekora: Euskal AE, lurralde historikoak, eskualdeak eta udalerriak, betiere tamainaren arabera taldekatuta.

Lehenik, hurbilketa historiko txiki bat egin dugu 1981, 1986, 1991 eta 1996ko zentsuen eta errolda-berriztapenen bidez. Aztergai den denbora-eremuak 1996ko maiatzaren 1etik orain dagokigun biztanleri eguneratzerara (2001eko abenduaren 31ko erreferentzia data) arteko zentsu arteko aldia hartzen du; bestetik, urteko aldakuntza, **Eustatek** argitaratutako azken biztanleria-eguneratzeetik.


## HURBILKETA HISTORIKOA

Biztanle-kopuru nagusien bilakaerak erakusten duenez, ez da eten 80ko hamarkadaren hasieran gure erkidegoan hasi zen biztanle-kopuruaren beheranzko joera. Ildo horretatik, ez da aldatu Euskal AEko zentsuen arteko hazkunde-tasa -zeinak biztanle-kopuruaren urteko batez besteko jaitsiera portzentajezkoa adierazten baitu, azkeneko errolda-berriztapenetik- eta zeinu negatiiboari zein zeinu horren intentsitateari eusten dio. Aztertu ditugun errolda arteko lehen hiru aldietan (1981-1986, 1986-1991 eta 1991-1996), tasak, aldizka, %-0,1en eta %-0,3ren artean egon dira. Eta errolda arteko azken aldian, 1996ko maiatzaren 1aren eta 2001eko abenduaren artean, %-0,04ra iritsi da tasa hori.

## Evolución de la tasa de crecimiento intercensal por territorio histórico (%)

## Zentsuen arteko hazkunte-tasen bilakaera lurralde historikoen arabera (%)

1.




Entre 1981 y finales de 2001, la C.A. de Euskadi registra una pérdida de 48.861 personas, es decir, del 2,3% de su población. Alava es el único territorio histórico en el que se producen ininterrumpidamente aumentos de población, debido a que logra incrementar sus efectivos en todos los períodos intercensales analizados, llegando a ganar 30.925 personas entre 1981 y diciembre de 2001, lo que implica un incremento del 12%. En el mismo período Bizkaia y Gipuzkoa descienden su población, destacando Bizkaia con una pérdida de 61.850 personas, lo que representa un 5% de su población total. Gipuzkoa a su vez, en estos años pierde 17.937 habitantes, es decir, cerca del 3% de su población.

1981etik 2001aren bukaerara, Euskal AEk 48.861 lagun galdu ditu, hau da, biztanle-kopuruaren %2,3. Lurralde historikoen artean, Araban baino ez da igo etengabe biztanle-kopurua, zeren biztanleak gehitzea lortu baitu aztergai ditugun zentsu artekoaldi guztietan, eta 30.925 pertsona irabazi ditu 1981aren eta 2001eko abenduaren artean, hau da, %12ko gehikuntza izan da. Bizkaiak eta Gipuzkoak, aldiz, biztanleak galdu dituzte. Bi horien artean, Bizkaia nabarmentzen da, 61.850 laguneko galera izan baitu, hau da, guztizko biztanleriaren %5. Gipuzkoak, berriz, urte horietan, 17.937 biztanle galdu ditu, hau da, biztanle-kopuruaren %3 inguru.

## Evolución de la estructura de la población de la C.A. de Euskadi por grupos de edad (%)

## Euskal AEko biztanleriaren egituraren bilakaera adin-taldeka (%)

2.



Respecto a la estructura de la población de la C.A. de Euskadi, la evolución de la distribución por grandes grupos de edad muestra un acusado y continuo descenso de efectivos en las edades más jóvenes, a la vez que un aumento en las edades más maduras. Entre 1981 y 2001 la población de la Comunidad de entre 0 y 19 años ha bajado del 34% al 17%, a su vez, en estos años la población de 65 y más años ha doblado su representación y ha pasado del 9% a casi el 18%.

## LA POBLACIÓN DE LA C.A. DE EUSKADI

Según la última Renovación Padronal de 1 de mayo de 1996, la C.A. de Euskadi contaba con 2.098.055 habitantes. Esta cifra de partida viene corregida por las sucesivas modificaciones que se producen durante el período interpadronal y que son debidas tanto a los errores intrínsecos a toda renovación padronal (generalmente infravaloraciones) como a los propios de la posterior gestión padronal. En este sentido, hasta el 31 de diciembre de 2001 se contabilizaron 27.255 omisiones y 9.125 duplicados e inclusiones indebidas, de forma que la población real a la fecha de esta Renovación alcanzaría los 2.116.185 habitantes.

A partir de esta cifra corregida se realiza la actualización de la población en base a los componentes demográficos básicos: crecimiento vegetativo y saldo migratorio. Entre la Renovación del Padrón de 1/5/96 y la Actualización de la Población a 31/12/01, la C.A. de Euskadi ha experimentado un descenso de 5.107 personas, pasando a contabilizar 2.111.078 habitantes. En este período interpadronal, la pérdida de población debida a la diferencia entre nacimientos y defunciones representa el 77% de la variación, concretamente, -7.289 habitantes, mientras que la correspondiente al saldo entre las entradas y salidas por cambio de residencia en nuestra Comunidad es el 23% restante, es decir, 2.182 personas.

En el último período interpadronal, entre el 1 de mayo de 1996 y el 31 de diciembre de 2001, la C.A. de Euskadi observa un descenso del 0,2% en el total de su población, lo que supone pérdidas sólo en el territorio histórico de Bizkaia (-1,1%). Álava aumenta sus efectivos el 2,4% y Gipuzkoa prácticamente mantiene sus cifras de población (0,1%).

En lo que se refiere a la distribución territorial de la población de la C.A. de Euskadi a 31 de diciembre de 2001, Bizkaia concentra algo más de la mitad de los efectivos totales de la Comunidad, el 54%, mientras que en Gipuzkoa se encuentra el 32% y en Alava el 14% restante.

Del total de habitantes de derecho de la C.A. de Euskadi resultantes en esta Actualización y atendiendo al reparto por sexos, 1.032.231 son varones y 1.078.847 mujeres, lo que supone una relación de feminidad de 1,05, es decir, hay 105 mujeres en la Comunidad por cada 100 varones. El territorio histórico de Bizkaia tiene 106 mujeres por cada 100 varones, Gipuzkoa cuenta con 104 mujeres por cada 100 varones y Alava, 101 mujeres por cada 100 varones.

Entre los que cuentan con 65 años ó más, y debido a su mayor esperanza de vida, es netamente superior el peso de las mujeres, 20% frente al 15% que representan los varones.

La pirámide de la población de la Comunidad a finales de 2001 indica que un 17% de la población se sitúa entre 0 y 19 años, un 65% entre 20 y 64 años y cerca del 18% cuenta con 65 ó más años. Alava a diferencia de Bizkaia y Gipuzkoa, tiene una es-

Euskal AEko biztanleriaren egiturari dagokionez, adin-talde nagusien arabera banaketaren bilakaerak jaitsiera nabarmena eta etengabea izan du adinik gazteenetan; adinik zaharretan, aldiz, igoera izan du. 1981 eta 2001 artean, 0 eta 19 urte arteko gure erkidegoko biztanleria %34tik %17ra jaitsi da; hamabost urte horietan, bestalde, 65 urte eta gehiagoko biztanleria bikoiztu egin da, eta %9tik ia %18ra igo da.

## EUSKAL AE-KO BIZTANLE-KOPURUA

1996ko maiatzaren 1eko azkeneko errolda-berriztapenaren arabera, Euskal AEK 2.098.055 biztanle zituen. Hasierako kopuru hori zuzendu egiten da, errolden arteko aldian egiten diren aldakuntzen bidez. Aldakuntza horiek, alde batetik, errolda-berriztapen guztiei dagozkien erroreek eragiten dituzte (eskuarki, azpibalioespena), bai eta ondorengo errolda-kudeaketak ere. Ildo horretatik, 2001eko abenduaren 31 arte 27.255 ez-erroldatze eta 9.125 berrerroldatze eta behar ez bezalako sarrera zenbatu dira; beraz, berriztapen hori egin zenean, benetako biztanle-kopurua 2.116.185 biztanlera iritsiko litzateke.

Zuzendutako kopuru horretan oinarrituz egiten da, hain zuzen, biztanleriaren eguneratzea; horretarako, demografi osagaiak hartzen dira kontuan: hazkunde begetatiboa eta migrazio-saldoa. 96/5/1eko errolda-berriztapenetik 01/12/31ko biztanleriaren eguneratzera, Euskal AEK 5.107 biztanle galdu ditu, eta orain 2.111.078 biztanle ditu. Aldi horretan, jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak eragindako biztanle-galerak aldakuntzaren %77 hartzen du, -7.289 biztanle, hain zuzen; helbide-aldaketengatik gertatzen diren sarreraren eta irteeren arteko saldoa, berriz, gainerako %23koa da, hau da, 2.182 pertsona.

Errolda arteko azken aldian, 1996ko maiatzaren 1aren eta 2001eko abenduaren 31ren artean, Euskal AEK %0,2ko jaitsiera ikusi du bere biztanleriaren guztizkoan eta Bizkaia bakarrik galdu ditu biztanleak (%-1,1). Arabak %2,4 biztanle gehiago ditu eta Gipuzkoakoan ez dira aldatu biztanleen zifrak.

Euskal AEko biztanleriaren lurralde-banaketari dagokionez, 2001eko abenduaren 31n, Bizkaia biltzen ditu erkidegoko guztizko biztanleen erdiak baino gehixeago, %54; Gipuzkoan, berriz, %32 kokatzen da, eta Araban, gainerako %14.

Euskal AEko zuzenbidezko guztizko biztanleetatik, eguneratze honen arabera eta sexukako banaketari jarraiki, 1.032.231 gizonetzkoak dira, eta 1.078.847 emakumezkoak. Emetasun-erlazioa, beraz, 1,05ekoa da, hau da, gure erkidegoan, 100 gizonetzko bakoitzeko 105 emakumezko daude. Bizkaiko Lurralde Historikoak 100 gizonetzko bakoitzeko 106 emakumezko ditu; Gipuzkoak 100 gizonetzko bakoitzeko 104 emakumezko ditu; eta Arabak, 100 gizonetzko bakoitzeko 101 emakumezko.

65 urte edo gehiago dituztenen artean, eta bizi-itxaropena handiagoa dutenez, askoz handiagoa da emakumezkoen pisua, %20; gizonetzkoena, berriz, %15 baino ez.

Gure erkidegoko biztanleriaren piramideak, 2001aren amaieran, adierazten du biztanleriaren %17 0 eta 19 urte artean dagoela; %65, 20 eta 64 urte artean; eta %18, 65 urte eta gehiagokoa dela. Arabako biztanleriaren egitura, Bizkaia eta Gipuzkoa-


estructura de población menos envejecida ya que el porcentaje de población joven es 1% superior mientras que el de población anciana es 2% inferior a la media de la Comunidad.

koa ez bezala, ez dago hain zahartuta, zeren biztanleria gaztearen ehunekoa gure erkidegoko batez bestekoa baino %1 handiagoa baita; biztanleria zaharrarena, aldiz, %2 txikiagoa.

### Estructura de la población por grupos de edad, sexo y territorio histórico (%)

3.

### Biztanleriaren egitura, adin-taldea, sexuka eta lurralde historikokoa (%)




Sin embargo, atendiendo a la variación anual, en el año 2001 se rompe la tendencia descendente de la población de los últimos años. Desde la última Actualización de Población Municipal (diciembre de 2000), la C.A. de Euskadi aumenta su población en 6.639 habitantes ya que por primera vez desde el inicio de la década de los 80 la suma de los balances vegetativo y migratorio da resultado positivo en los tres territorios históricos.

Hala ere, urteko aldakuntzari begiratuta, 2001ean azken urteotako biztanleriaren beheranzko joera apurtu egin da. Udal-biztanleriaren azken eguneratzetik (2000ko abendutik), Euskal AEk 6.639 biztanle irabazi ditu, 80ko hamarkadaren hasieratik lehenengo aldiz balantze begetatiboa eta migrazio-balantzearen baturak emaitza positiboa izan baitu hiru lurralde historikoetan.

### Evolución de los componentes de la variación de la población

4.

### Biztanleriaren aldakuntzaren osagaien pisu espezifikoak lurralde historikokoa



La variación anual resulta positiva en los tres Territorios Históricos y no se aprecian diferencias importantes a nivel territorial, ni en lo referente al signo ni a la composición de la variación.

En cuanto al signo, Alava, con una ganancia de 2.533 personas, es el territorio histórico con mayor incremento de población (0,9%); Gipuzkoa registra un aumento de 1.890 habitantes (0,3%) y Bizkaia con una ganancia de 2.216 personas (0,2%) cambia durante el año 2001 el signo de su saldo. La recuperación en las cifras de población de la C.A. de Euskadi se dan, por tanto, gracias a la contribución de los tres territorios.

También en los tres territorios históricos la variación viene determinada durante el año 2001 por el componente migratorio, es decir tanto en Álava, como en Bizkaia y en Gipuzkoa el balance entre las entradas y salidas por migración es el que determina la variación poblacional.

Urteko aldakuntza positiboa izan da hiru herrialdeetan eta ez da nabari lurraldearen araberako alde handirik, ez zeinu mailan, ezta aldakuntzaren osaeran ere.


Zeinuari dagokionez, Araba izan da 2.533 lagun gehiagorekin, biztanle-gehikuntzarik handiena izan duen lurralde historikoa, %0,9koa, hain zuzen; Gipuzkoak 1.890 biztanle irabazi ditu (%0,3), eta Bizkaia beste 2.216 irabazi eta bere saldoaren zeinua aldatu du 2001ean. Euskal AEko biztanleria-zifrak susperztean, beraz, hiru herrialdeen ekarpenek eragin dute.

2001ean, migrazio-osagaiak eragin du aldakuntza hiru herrialdeetan, hots, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan migrazioagatiko sarreraren eta irteeren arteko balantzeak zehaztu du biztanleen aldakuntza.

### Peso específico de la variación de la población por territorio histórico (%)

5.

### Biztanleriaren aldakuntzaren pisu espezifiko, lurralde historikoaren arabera (%)



Atendiendo a la evolución en la serie de actualizaciones anuales, iniciada por Eustat en 1991, se observa un cambio gradual en la incidencia del saldo vegetativo y del saldo migratorio en la variación interanual de la población de la C.A. de Euskadi. Hasta 1999 el crecimiento vegetativo negativo creciente incrementó progresivamente su peso en la determinación de la variación poblacional total, también negativa. Sin embargo, en el año 2000 la recuperación por primera vez desde 1976 de un saldo migratorio positivo ha permitido que el saldo total sea también positivo. La inmigración aportó el 94% del crecimiento demográfico de la C.A. de Euskadi en 2001, a pesar de mantenerse, aunque más débilmente, el signo negativo del saldo vegetativo.

Eustatek 1991n hasitako urteroko eguneratzeen serieen bilakearri begirata, pixkanakako aldaketa nabari da Euskal AEko biztanleriaren urte arteko aldakuntzan saldo begetatiboak eta migrazio-saldoak duten eraginean. 1999 arte, goranzko hazkunde begetatibo negatiboak areagotu egin zuen osagai horrek biztanleriaren guztizko aldakuntzan (hori ere negatiboa) zuen pisua. Hala ere, 1976tik lehenengo aldiz, migrazio-saldo positiboa berreskuratu da 2000n eta horrek ahalbideratu du guztizko saldoa ere positiboa izatea. Inmigrazioak Euskal AEko hazkunde demografikoaren %94 ekarri zuen 2001ean, saldo begetatiboaren zeinu negatiboak, ahulago bada ere, eutsi egiten dion arren.

### LA POBLACIÓN DE LAS COMARCAS

Descendiendo a nivel comarcal, las tres comarcas que incluyen las capitales concentran algo más de las dos terceras partes de la población total de la Comunidad; así la Llanada Alavesa aco-

### ESKUALDEETAKO BIZTANLERIA


Eskualde mailara jaitsiz, hiriburuak hartzen dituzten hiru eskualdeek gure erkidegoko biztanleria osoaren bi herenetik gora biltzen dute; hala nola, Arabako Lautadak Euskal AEko biztanleria-

ge el 11% de la población de la C.A. de Euskadi, Donostia-San Sebastián el 15% y el Gran Bilbao casi la mitad de la población, concretamente el 42%.

ren %11 hartzen du, Donostialdeak %15 eta Bilbo Handiak ia biztanleriaren erdia, %42.

## Tasa de crecimiento intercensal por comarca (%)

## 6. Zentsu arteko hazkunde-tasa, eskualdeka (%)



Las tasas de crecimiento intercensal observadas desde la última Renovación Padronal hasta esta Actualización muestran que once de las veinte comarcas existentes en nuestra Comunidad cuentan con tasas positivas. Sobresalen Valles Alaveses, Estribaciones del Gorbea y Plentzia-Mungia como comarcas con comportamiento positivo, con tasas superiores al 2%; mientras que en el lado opuesto se situaría la comarca del Bajo Deba cuya tasa está cercana al -1%.

Solamente tres comarcas experimentan descensos de población desde la última Actualización: Bajo Deba, Donostia-San Sebastián y Cantábrica Alavesa. En conjunto pierden 406 habitantes (0,1%). El resto de comarcas experimentan crecimientos de población ganando 7.045 personas, es decir, el 0,4% de su población.

Respecto al signo de los componentes de la variación poblacional, la totalidad de las comarcas con incrementos de población registran saldos migratorios positivos, aunque no siempre su balance entre nacimientos y fallecimientos sea favorable, como es el caso de Valles Alaveses, Montaña Alavesa, Arratia-Nerviñ, Gran Bilbao, Alto Deba, Encartaciones, Rioja Alavesa, Gernika-Bermeo y Markina-Ondarroa. Por su parte, exceptuando la comarca de Donostia-San Sebastián, todas las demás con pérdida de población registran crecimientos vegetativos negativos.

## LA POBLACIÓN DE LOS MUNICIPIOS

De los 250 municipios que componen la C.A. de Euskadi, 105 presentan tasas de crecimiento intercensal negativas, es decir, desde la última Renovación Padronal de fecha 1 de mayo de 1996 descienden en número de habitantes, tres mantienen sus cifras de población y 142 las ven incrementadas.

Azkeneko errolda-berriztapenetik eguneratze honetara arte izan diren zentsu arteko hazkunde-tasek erakusten dutenez, gure erkidegoan dauden hogeitazko eskualdeetatik, hamaikak tasa positiboak izan dituzte. Aipatzekoak dira, portaera positiboa izateagatik, Arabako Ibarrek, Gorbeia Inguruak eta Plentzia-Mungia, %2ren gaineratik dauden tasekin; kontrako aldean dago Deba Beherea eskualdea, %-1en azpitik dauden tasekin.

Azken eguneratzetik, biztanleak galdu dituzten eskualdeak hiru besterik ez dira: Bebabarrena, Donostia-San Sebastián eta Kantauri Arabarra. Denen artean 406 (%0,1) lagun galdu dituzte. Gainerako eskualdeetan, gora egin du biztanle-kopuruak, eta guztira 7.045 pertsona irabazi dituzte, hau da, biztanleriaren %0,4.

Aldakuntzaren osagaiei dagokienez, biztanle-gehikuntzak izan dituzten eskualde guzti-guztiek migrazio-saldo positiboak izan dituzte, nahiz eta jaiotzen eta heriotzen arteko balantzea ez izan beti aldekoa, hala nola Arabako Ibarretan, Arabako Mendialdean, Arratia-Nerbioin, Bilbo Handian, Debagoienan, Enkartzazioetan, Errioxa Arabarren, Gernika-Bermeon eta Markina-Ondarroan. Bestalde, Donostia-San Sebastián eskualdea izan ezik, biztanleak galdu dituzten gainerako guztiek hazkunde begetatiboak dituzte.


## UDALERRIETAKO BIZTANLERIA

Euskal AE osatzen duten 250 udalerrietatik, 105ek zentsu arteko hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte, hau da, 1996ko maiatzaren 1eko errolda-berriztapenez geroztik, behera egin du udalerrietako biztanle-kopuruak, hirutan mantendu egin dira biztanleria-zifrak, eta 142tan, gora egin dute.

Peso específico de los componentes de la variación de la población por comarca (%)

7.

Biztanleriaren aldakuntzaren osagaien pisu espezifikoa, eskualdeka (%)



Hemos procedido a agrupar los municipios en las cinco categorías siguientes:

1. municipios grandes: más de 100.000 habitantes,
2. municipios medianos: 40.001-100.000 habitantes,
3. municipios intermedios: 20.001-40.000 habitantes,
4. municipios intermedios: 10.001-20.000 habitantes,
5. municipios pequeños: menos de 10.001 habitantes.


Udalerriak ondorengo bost ataletan taldekatu ditugu:

1. udalerrri handiak: 100.000 biztanletik gora,
2. udalerrri ertainak: 40.001-100.000 biztanle,
3. udalerrri bitartekoak: 20.001-40.000 biztanle,
4. udalerrri bitartekoak: 10.001-20.000 biztanle,
5. udalerrri txikiak: 10.001 biztanletik behera.

Tasa de crecimiento intercensal por tamaño del municipio (%)

8.

Zentzu arteko hazkunde-tasa, udalerrriaren tamainaka (%)



Solamente en la categoría que incluye los municipios menores de 10.001 habitantes se dan incrementos de población; en todas las demás, se observan decrecimientos poblacionales desde la última Renovación Padronal de 1 de mayo de 1996.


En términos relativos, la categoría que reúne a los municipios de tamaño mediano (entre 40.001 y 100.000 habitantes), es la que tiene mayores descensos porcentuales y cuenta con la tasa de crecimiento intercensal negativa más acusada. En tanto que los municipios de menor tamaño poblacional, además de las tres capitales que conforman la categoría de más de 100.000 habitantes, tienen mejores comportamientos con los menores descensos.

10.001 biztanletik beherako udalerrietan baino ez dira izan biztanle-gehikuntzak; gainerako atal guztietan behera egin du biztanle-kopuruak, 1996ko maiatzaren 1eko azken errolda-berriztapenetik.

Kopuru erlatibotan, tamaina ertaineko udalerriak biltzen dituen atalak (40.001 eta 100.000 artekoek) izan du jaitsiera portzenta-jezko handiena, eta horiek izan dituzte zentsu arteko hazkunde-tasa negatibo nabarmenenak. Tamaina txikiagoko udalerriek izan dituzte, 100.000 biztanletik gorako atala osatzen duten hiru hiriburuekin batera, galerarik txikiak eta joerarik onenak.

Tasa de crecimiento intercensal por municipio (%)

9. Zentsu arteko hazkunde-tasa, udalerrika (%)



A continuación analizaremos cada una de las categorías por separado, no obstante, cabe señalar que los municipios de la C.A. de Euskadi que experimentan, durante 2001, los mayores incrementos absolutos en sus cifras de población son Vitoria-Gasteiz con un aumento de 1.931 personas, Bilbao con 654 habitantes más, Irun que gana 579 personas, Arrigorriaga con 464 habitantes más, Zarautz que gana 383 personas y Leioa que cuenta con 373 habitantes más que en diciembre de 2000.

Jarraian, atal guztiak banan-banan aztertuko ditugu. Dena dela, aipatu behar da honako hauek direla, 2001ean, euren biztanle-kopuruetan gehikuntza absolutu handienak izan dituzten Euskal AEko udalerriak: Vitoria-Gasteiz (1.931 biztanle gehiago), Bilbao (654), Irun (579), Arrigorriaga (464), Zarautz (383) eta Leioa (2000ko abenduan baino 373 biztanle gehiago ditu orain).

En el lado opuesto, los que cuentan con mayores descensos absolutos en su población durante 2001 son Barakaldo, que pierde 866 habitantes, seguido de Basauri con una pérdida de 598 habitantes, Portugalete que pierde 503 habitantes, Sestao con 382 personas menos y Donostia-San Sebastián con una pérdida de 363 habitantes; destacar que la mayoría de ellos son municipios vizcaínos ubicados en la margen izquierda del Nervión.

Beste aldean, 2001ean biztanle-kopuruan jaitsiera absolutu handienak dituzten udalerrien artean, Barakaldo (866 biztanle galdu ditu) dago; ondoren, Basauri (598), Portugalete (503), Sestao (382), eta Donostia-San Sebastian (363) daude. Aipatu behar da horietako gehienak Bizkaiko udalerriak direla, gehienak Nerbioi ibaiaren ezker aldekoak.

En cuanto a la variación relativa, los municipios de más de diez mil habitantes que experimentan un incremento anual superior al 1% son Arrigorriaga (4,4%), Sopelana (2,8%), Hondarribia

Aldakuntza erlatiboari dagokionez, hamar mila biztanletik gorako udalerrien artean, hona hemen %1ren gainera urteko gehikuntza izan dutenak: Arrigorriaga (%4,4), Sopelana (%2,8), Hondarri-

(2,2%), Zarautz (2,0%), Mungia (1,7%), Leioa (1,4%), Durango (1,2%) e Irun (1,0%); por el contrario, el mayor descenso anual relativo de población superior al -1% lo experimentan los municipios de Pasaia (-1,6%), Basauri (-1,2%) y Sestao (-1,1%).

Aquéllos que cuentan con el mayor crecimiento vegetativo desde la última Actualización de Población Municipal, son la capital del territorio alavés (+274) y el municipio vizcaíno de Leioa (+145). Mientras que en 2001, los municipios que cuentan con el mayor saldo migratorio positivo son Vitoria-Gasteiz (+1.657), Bilbao (+1.391), Irun (+494) y Arrigorriaga (+440).


### Los municipios grandes

Las capitales de los tres territorios históricos, son los tres municipios con población superior a 100.000 habitantes y concentran cerca del 36% del total de población de la Comunidad. Las tasas de crecimiento intercensal son positivas en Donostia-San Sebastián (0,1%) y en Vitoria-Gasteiz (0,3%) mientras que resulta negativa en Bilbao (-0,4%).

Peso específico de los componentes de la variación de la población por municipio (>100.000 hab.) (%)

10.

Biztanleriaren aldakuntzaren osagaien pisu espezifikoak, udalerriak (>100.000 biz.) (%)



Desde la última Actualización de Población, la variación anual conjunta de este grupo de municipios se sitúa en 0,3%. Bilbao y Vitoria-Gasteiz aumentan su población en 654 (0,2%) y 1.931 (0,9%) habitantes respectivamente. De signo contrario es el comportamiento de Donostia-San Sebastián, que reduce su población en 363 habitantes, es decir, un 0,2% en 2001.

bia (%2,2), Zarautz (%2,0), Mungia (%1,7), Leioa (%1,4), Durango (%1,2) eta Irun (%1,0); aldiz, biztanle-kopuruaren urteko jaitsiera erlatibo handiena (%-1en gainerikoa) honako udalerririk hauek izan dute: Pasaia (%-1,6), Basauri (%-1,2) eta Sestao (%-1,1).

Udalerrietako biztanleriaren azkeneko eguneratzetik hazkunde begetatiboa handiena izan dutenak honakoak dira: Arabako hiriburua (+274) eta Bizkaiko Leioa (+145) udalerria. 2001ean, migrazio-saldo positiborik handiena duten udalerririk, aldiz, Vitoria-Gasteiz (+1.657), Bilbao (+1.391), Irun (+494) eta Arrigorriaga (+440) dira.

### Udalerri handiak

100.000 biztanletik gorako biztanleria duten hiru udalerririk hiru lurralde historikoetako hiriburuak dira, eta gure erkidegoko biztanleriaren gutzitzaoren %36 biltzen dute. Zentsu arteko hazkunde-tasak positiboak dira Donostian (%0,1) eta Vitoria-Gasteizen (%0,3); Bilbon, aldiz, negatiboak dira (%-0,4).

Durante el año 2001 Bilbao y Vitoria-Gasteiz, capitales que ganan población lo hacen gracias al saldo migratorio, mientras que en Donostia-San Sebastián tiene mayor incidencia el crecimiento vegetativo y ambos componentes negativos reafirman el descenso de población.

En cuanto a la distribución espacial del crecimiento, en Donostia-San Sebastián la mayoría de los distritos descienden su número de habitantes excepto el distrito VI, correspondiente a los barrios de Añorga e Ibaeta (2,6%).

Vitoria-Gasteiz, aumenta su población fundamentalmente gracias al distrito V correspondiente a los barrios de Lakua y Sansomendi (8,3%) y al distrito VI de la zona rural (1,3%).

En Bilbao destacan por aumentar su número de habitantes el distrito V, donde se ubican los barrios de Atxuri, La Peña, Bilbao la Vieja y San Adrián (1,2%) y, el distrito VII correspondiente a los barrios de Amezola e Iralabarri (1,3%).

### Los municipios medianos

En la C.A. de Euskadi hay seis municipios cuya población se sitúa entre 40.001 y 100.000 habitantes y aglutinan el 18% de la población total de la Comunidad. Cuentan con tasas de crecimiento intercensal negativas: Barakaldo (-0,9%), Basauri (-0,8%), Portugalete (-1%) y Santurtzi (-0,8%), todos ellos con tasas por debajo de la media de la Comunidad. Con crecimiento positivo están Getxo cuya tasa es de 0,3% en Bizkaia, e Irún con una tasa de 0,5% en Gipuzkoa.

2001ean biztanleak irabazi dituzten hiriburuek migrazio-saldoari esker lortu dituzte, baina Donostian, aldiz, eragin handiagoa du hazkunde begetatiboak eta osagai negatibo biek berretsi egin dute biztanleria-galera.

Hazkundearen lurralde-banaketari dagokionez, Donostian barruti gehienetan jaitsi da biztanle-kopurua, VI. barrutian izan ezik. Barruti horretan daude Añorga eta Ibaeta (%2,6).

Vitoria-Gasteizek, berriz, batez ere V. eta VI. barrutiei esker igodu biztanle-kopurua. V. barrutia Lakua eta Sansomendi auzoei (%8,3) dagokie eta VI.a nekazaritzako inguruari (%1,3).

Nabarmentzekoak dira izandako biztanle-irabaziagatik Bilboko V. eta VI. barrutiak. Barruti horietan daude Atxuri, La Peña, Bilbo Zaharra eta San Adrian auzoak (%1,2) eta Amezola eta Iralabarri auzoak (%1,3), hurrenez hurren.


### Udalerrri ertainak

Euskal AEn, 40.001 eta 100.000 biztanle bitarteko sei udalerrri daude, eta gure erkidegoko biztanleria osoaren %18 hartzen dute. Zentsu arteko hazkunde-tasa negatiboak Barakaldoko (%-0,9), Basaurik (%-0,8), Portugaletek (%-1) eta Santurtzik (%-0,8); guztiak gure erkidegoko batez besteko tasaren azpitik dauden tasekin. Hazkunde positiboa izan dut Bizkaian Getxok (%0,3) eta Gipuzkoan Irunek (%0,5).

Peso específico de los componentes de la variación de la población por municipio (40.001-100.000 hab.) (%)

11.

Biztanleriaren aldakuntzaren osagaien pisu espezifikoak, udalerrika (40.001-100.000 biz.) (%)



En cuanto a la variación más reciente, el conjunto de municipios incluidos en esta categoría cuenta con un ritmo de variación anual global de -0,4%.

Aldakuntza berrienari dagokionez, atal horretan sartutako udalerrien multzoak %-0,4ko urteko aldakuntza-eritmo globala izan du.


En todos los municipios que componen este grupo, la variación de la población está claramente determinada por el saldo migratorio.

Talde hori osatzen duten udalerrietan, aldakuntza, batik bat, migrazio-saldoak eragin du.

Peso específico de los componentes de la variación de la población por municipio (20.001-40.000 hab.) (%)

12.

Biztanleriaren aldakuntzaren osagaien pisu espezifikoa, udalerrika (20.001-40.000 biz.) (%)



### Los municipios intermedios

Los nueve municipios cuya población se encuentra entre 20.001 y 40.000 habitantes, representan el 12% de la población total de la Comunidad. De ellos, sólo tres obtienen tasas de crecimiento intercensal positivas: Durango (1,1%), Leioa (1,4%) y Zarautz (1,7%).

Son estos mismos municipios, además de Galdakao, los que registran incrementos en sus cifras de población desde la última Actualización. Por el contrario, Arrasate/Mondragón, Eibar, Erandio, Errenteria y Sestao tienen pérdidas absolutas de habitantes, destacando Sestao por su mayor descenso relativo, superior al 1%. Esta categoría de municipios cuenta con una variación conjunta anual de 0,1%. Excepto en los municipios de Arrasate/Mondragón, Eibar y Galdakao, las variaciones de población vienen determinadas en su mayoría, por los saldos migratorios.

El 15% de la población de la C.A. de Euskadi reside en un total de 22 municipios con población entre 10.001 y 20.000 habitantes. Destaca el municipio de Pasaia, con una tasa de crecimiento intercensal negativa inferior al -1%, mientras que con tasas positivas superiores al 1%, figuran Sopelana (2,1%), Arrigorriaga (1,2%), Hondarribia (1,1%) y Mungia (1,1%).

Esta categoría de municipios gana en conjunto 1.103 habitantes, por ello su variación anual conjunta es del 0,3%. Catorce municipios incrementan su población dentro de esta categoría y ob-

### Bitarteko udalerriak

20.001 eta 40.000 biztanle bitarteko bederatzita udalerriek erkidegoko biztanleria osoaren %12 hartzen dute. Horiatarik, hiruk baino ez dituzte lortu zentsu arteko hazkunde-tasa positiboak: Durangok (%1,1), Leioak (%1,4) eta Zarautzek (%1,7).

Udallerri horiek berek, eta Galdakao, gehikuntzak izan dituzte biztanle-kopuruetan, azken berriztapenetik. Aldiz, Arrasatek, Eibarrek, Erandio, Errenteriak eta Sestao biztanle-galera absolutuak izan dituzte, eta aipatzekoak da Sestao, udallerri horretan izan delako jaitsiera erlatiborik handiena, %1en gainera. Udallerri horietan urteko %0,1eko baterako aldakuntza dute. Arrasate, Eibar eta Galdakao udalerrietan izan ezik, biztanle-kopuruaren aldakuntza guztiak gehienbat migrazio-saldoek eragin dituzte.

Euskal AEko biztanleriaren %15 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko 22 udalerri bizi da. Aipatzekoak da Pasaia, %-1en azpitik dagoen zentsuen arteko hazkunde-tasa negatiboa izan delako; Sopela (%2,1), Arrigorriaga (%1,2), Hondarribia (%1,1) eta Mungia (%1,1), aldiz, %1en gainera dauden tasa positiboak izan dituzte.

Udallerri-talde horrek guztira 1.103 biztanle irabazi ditu eta ondorioz, urteko aldakuntza bateratua %0,3koa da. Hamalau udalerri gehitu dute biztanleria atal horretan, eta 1.934 biztanleko iguera


tienen un aumento de 1.934 habitantes lo que representa un 1,1% de su población, mientras que los ocho municipios que decrecen pierden 831 habitantes, es decir, el 0,7%.

lortu dute, hau da, euren biztanleriaren %1,1; kopuru horretan jaitsierak dituzten zortzi udalerrien multzoak, aldiz, 831 biztanle galdu ditu, hau da, biztanleriaren %0,7.

### Peso específico de los componentes de la variación de la población por municipio (10.001-20.000 Habs.) (%)

13.

### Biztanleriaren aldakuntzaren osagaien pisu espezifikoak, udalerrika (10.001-20.000 biz.) (%)



En la mayoría de los municipios que se incluyen en esta categoría, la variación de población viene determinada por el saldo migratorio; aunque esto no ocurre en el municipio de Gernika-Lumo, en el cual ambos componentes demográficos contribuyen por igual a la variación poblacional.

Atal horretan sartzen diren udalerrri gehienetan, biztanle-kopuruaren aldakuntza migrazio-saldoak eragin du. Ez da hala gertatu Gernika-Lumon, udalerrri horretan eragin bera baitute bi osagai demografikoak.

#### Los municipios pequeños

Por último, los 210 municipios restantes con menos de 10.001 habitantes agrupan el 19% del total de la población de la Comunidad. De ellos, 130 cuentan con tasas de crecimiento intercensal positivas y 80 la tienen de signo negativo. Entre los municipios de más de mil habitantes, destacan con tasas positivas superiores al 3%, Zuia (5,2%), Alegría-Dulantzi (4,3%) y Zigoitia (3,5%) en Álava y Gorniz (4,5%), Bakio (3,8%), Loiu (3,5%), Gamiz-Fika (3,1%) y Gatika (3%) en Bizkaia.

#### Udalerri txikiak

Azkenik, 10.000 biztanletik beherako gainerako 210 udalerriek Euskal AEko biztanleria osoaren %19 inguru biltzen dute. Horietatik, 130ek zentsu arteko hazkunde-tasa positiboak izan dituzte eta 80k, berriz, negatiboak. Mila biztanletik gorako udalerrien artean, %3tik gorako tasekin, berriz, beste hauek nabarmendu dira: Zuia (%5,2), Alegria-Dulantzi (%4,3) eta Zigoitia (%3,5) Araban eta Gorniz (%4,5), Bakio (%3,8), Loiu (%3,5), Gamiz-Fika (%3,1) eta Gatika (%3) Bizkaian.

El conjunto de municipios menores de 10.001 habitantes es el que presenta una variación anual positiva mayor, concretamente del 1,1%. De este grupo de municipios, aquellos que incrementan su población obtienen un aumento de 5.363 habitantes, es decir, el 2% de su población, mientras que el conjunto de los que decrecen pierden 902 habitantes, el 0,7% de su población inicial.

10.001 biztanletik beherako udalerrien taldeak du urteko aldakuntza positiborik handiena, %1,1koa, hain zuzen ere. Udalerritalde horretan, biztanle-kopurua gehitu dutenek 5.363 biztanleko igoera lortu dute, hau da, biztanleriaren %2; biztanleak galdu dituztenek, aldiz, 902 biztanle galdu dituzte, hau da, hasierako biztanle-kopuruaren %0,7.

En las anteriores Actualizaciones de Población, elaboradas por Eustat, esta categoría ha ido disminuyendo paulatinamente sus pérdidas de población hasta 1995, año en el que cambia el signo de la variación anual obteniendo un balance positivo, confirmándose esta tendencia en los siguientes años.

En tres de cada cuatro de estos municipios la variación poblacional obedece al saldo migratorio, mientras que en el restante, las variaciones de población vienen determinadas por el crecimiento vegetativo.

Eustatek osatu dituen aurreko biztanleriaren eguneratze-lan guztietan, atal horretako biztanle-galerak pixkanaka gutxituz joan dira; 1995ean, hain zuzen, aldatu egin da urteko aldakuntzaren zeinua, eta urte horretan positiboa izan da, eta hurrengo urtean sendetsi egin da joera hori.

Udalerri horien artean, lautik hirutan, biztanleriaren aldakuntza migrazio-saldoari dagokio; gainerakoetan, berriz, biztanle-kopuruaren aldakuntzak hazkunde begetatiboek eragin dituzte.